



Usurbilgo Udala

## **NAGORE SARASOLA OTERMIN, USURBILGO UDALEKO IDAZKARIA**

### **NEUK ZIURTATUA**

Nire ardurapeko Idazkaritzan dagoen dokumentazioa aztertu ondoren, Usurbilgo Udalbatza Plenoak, 2014ko apirilaren 29an egindako ohiko bilkuran honako erabakia hartu du, dagokion akta onartzean geratuko litzatekeen erredakzioaren erreserban:

### **6.2.- GIPUZKOAKO SOS ARRAZAKERIA ERAKUNDEAK AURKEZTUTAKO MOZIOA: CEUTARA IRITSI NAHIAN OTSAILAREN 6AN HILDAKOAK.**

Batzarkideek, Gipuzkoako SOS Arrazakeria erakundeak aurkeztutako mozioa aztertu dute eta aho batez onartu dute, honako testuaren arabera:

“Joan den otsailaren 6an, Ceutara iritsi nahian gutxienez 15 lagun hil izanak eta Guardia Zibilak haien aurka erabilitako indarkeriak iritzi publikoa asaldatu du.

Nazioarteko zuzenbide humanitarioak agintzen duen bizitzaren babesaren gainetik mugen kontrola lehenestea ez dator bat gure legeriarekin ez eta gure balio moralekin.

Nola ahaztu, halaber, kanporatuak izan diren edo ihesera jo duten pertsona horien herrialdeetako egoera ekonomiko eta sozialean Europako Batasunak duen erantzukizuna.

Gertaera hauek berriro nabarmen erakutsi dute ze ondorio dakartzan Europako Batasunaren migrazio politika mugen blindatze tematian oinarritzeak: Mediterraneo eta EBeko hego muga hobi komun bihurtu dira.

Ceutako eskuhartzeak gizarte zibilaren eta politikarien gaitzespena eragin du, eta poliziaren jokaeraren kritikaz gain ikerketa independentea eta erantzukizun politikoak ere eskatu dira.

Gertatutako guztiari Espainiako barne ministroak argibide sinesgaitzekin erantzun dio, Guardia Zibilaren jokaera babestu du eta uko egin dio Guardia Zibileko zuzendaria kargugabetzeari, zeinaren dimisioa aho batez eskatu den.

Horretaz gain, Espainiako gobernuak iragarri du legeetan aldaketak egiteko asmoa duela, etorkizunean poliziaren jokaera horiek babesteko. Jarrera hau bereziki larria iruditzen zaigu, gertatutakoa onartzeaz gain espainiar eta europar legeriak egun babesten dituen eskubideen murrizketa ekarriko duelako.

Honengatik guztiagatik, udal honek

1.- Ceutara iritsi nahian otsailaren 6an hildako pertsonen heriotza deitoratzen du, eta bere dolumina eskaintzen die haien senide eta lagunei.





Usurbilgo Udala



2.- Guardia Zibilaren jokaera gaitzesten du, bizitza arriskuan zuten pertsonak lagundu ordez, haien kontra jotzeagatik.

3.- Gertaerak ikertzeko batzorde independente bat sortzea eskatzen du, eta erantzukizun politikoak bere gain hartu behar dituenak har ditzala, baita Guardia Zibileko zuzendari orokorraren dimisioa ere.

4.- Espainiako gobernuari eskatzen dio ez dezala lege aldaketarik egin espainiar estatuko lurraldeetara iritsi nahi duen jendeari egun onartzen zaizkion eskubideak mugatzeko. Bereziki deigarria da espainiar gobernuak aurreratutako asmoetan, aterpe bila dabiltzan pertsonen nazioarteko babesa eragotziko liekeela.”

Bozketa egin ondoren, honako emaitza izan da:

Aldeko botoak: Mertxe Aizpurua Arzallus, Alaitz Aizpurua Labaca, Josu Portu Alzaga, Jone Urdampilleta Urdampilleta, Enara Arbizu Irurtia, Iñaki Ugarte Aguirre, Jose Ramon Furundarena Salsamendi, Luismari Ormaetxea Santsifena eta Miren Josune Urquia Carrera

Beraz, mozioa aho batez onartua izan da.

**Eta behar diren ondorioetarako ziurtagiri hau luzatu eta izenpetzen dut, alkateak Ontzat Emanik. Usurbilen, 2014ko maiatzaren 7an.**

ALKATEAK  
O.E.



IDAZKARIA